

Merkatariekin, ikasleekin, bizilagunekin eta Tokiko Agenda 21eko Foroko kideekin egindako tailerraren akta

Gaia: Legazpiko Kale Nagusia berritzea



2014ko urriaren 30ean, arratsaldeko 18:30etik 20:15era, Legazpiko udaletxeko Batzar Aretoan egindako bileraren akta.

Laburpena

Tailer honi esker aurrera egin dugu Kale Nagusi berria diseinatzeko eginkizunean.

Era askotako pertsonak bildu gara, 50 baino gehiago –merkatariak, bizilagunak, gazteak,...– eta kalea “jantziko” duten elementu desberdinen gaineko irizpideak adostu ditugu. Gaurko tailerrean jasotako emaitzekin Udalak Kale Nagusi berriaren zirriborroa edo zirriborroak landuko ditu eta horiek datorren abenduaren 4an aztertuko ditugu.

Segidan tailerraren zehaztasunak emango ditugu ondoko eskema jarraituz...

... edukien eskema:

1. Nortzuk?
2. Zertarako? Helburuak
3. Tailerra, puntuz puntu
 - a. Berriak
 - b. Kale Nagusia berritzeko lanekin jarraitzen dugu
 - i. Aurreko tailerren emaitzak eta ondorioak
 - ii. Funtsezko elementuak kalearen diseinuan; debatea
4. Hurrengo urratsak

Ikus dezagun!

1. Nortzuk?



Gaurko tailerrean hauek hartu dute parte:

Dendariak:

- Kloti Osinalde
- Rafa Urcelay
- Lorenzo Fenoll
- Aitor Mendia (merkataritza dinamizatzeko bulegoa)
- Josean Idigoras
- Jon Zubizarreta
- Mattin Osinalde

Bizilagunak eta Tokiko Agenda 21eko Foroko kideak:

- Juncal Fernandez
- Mikel Alberdi
- M^a Cruz Lizarazu
- Josetxo Agreda
- Juan Pedro Agirre
- Floren Gutierrez
- Manuel Fernandez (Nagusilan)
- Pilar Makibar
- Koldobike Olabide
- M^a Dolores Zabaleta



Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



- Lina Etxaniz
- Lucia Areizaga
- Feli Nuñez
- Jaione Mujika
- M^a Jesus Garmendia
- M^a Luisa Bereziartua
- Luisa Sanchez
- Enrique Bizkaia eta Juan Luis Ormazabal (Telleriarteko Txirindulari Elkarteak)
- Xabier Baztarrika eta Rafa Gomez (Buskabaso)
- Jesus M^a Osinalde
- Gurutze Laboa (Ingurugela)
- Isa Sanz
- Juan Carlos Agirre
- Jon Ander Arzuaga
- Feli Sanchez
- Laura Munarriz

Ikastetxeak: Domingo Agirre, Haztegi ikastola eta Olazabal institutua

- Iñaki Mauleon
- Eva Triguero
- María Martínez
- Maite Odriozola
- Koro Zabaleta
- Txomin Alzelai
- Len Maldonado
- Ian Maldonado
- Sorkunde Aseginolaza
- Maria Osinalde
- Ainhoa Delgado
- Maria Andueza

Udal ordezkariak:

- Kepa Urzelai, alkatea
- Igor Urrate, zinegotzia
- Arantza Arizmendi, zinegotzia
- Javier Iraeta, zinegotzia
- Oscar Valbuena, zinegotzia
- Ane Mendinueta eta Aitziber Olarte, arkitektoak
- Inma Hernandez, Tokiko Agenda 21eko teknikaria

Errazte-lanetan Prometea taldeko Zorione Aierbe eta Iciar Montejo

Guztiei, eskerrik asko!

Eskerrik asko Kale Nagusiaren diseinu berria elkarrekin sortzeko eman duzuenagatik!

2. Zertarako? Helburua



3 dira tailer honen helburuak:

1. Merkatariekin eta ostalariekin, bizilagunekin eta Agenda 21eko Foroaren kideekin eta ikastetxeekin Kale Nagusia berritzeari buruz egindako tailerren **emaitzak aurkeztea**.
2. Emaitza horien arabera, Kale Nagusi berriaren ezaugarrien gainean hartu diren lehenengo **udal erabakiak aurkeztea**.
3. Kale berriaren ezaugarriak eta **funtsezko elementuak elkarrekin zehaztea**.

Eta horrela, gidoi hau esku arten dugula, gaurko tailerra eraiki dugu.

3. Tailerra, puntutz puntu



3.1. Berria: oharrak

Hasteko, Inma Hernandez teknikariak Legazpiko Agenda 21eko hainbat kontu aipatu dizkigu. Gauza txikiak eta laburrak dira baina baita inportanteak ere! Hona hemen:



- Gaur bertan Udalak urteko Ekoscan kanpoko ikuskaritza izan du. Aurten udalerriko zenbait kaleren argiak aztertu dira eta ezarritako neurriei esker, handia izan da ingurumenean eta ekonomia arloan eman den hobekuntza: "Aztertu diren faroletan % 68,21ean murriztu da energia elektrikoaren kontsumoa".



- Legazpiko Udalak ingurumenaren aldeko sentsibilizazioa areagotzeko eta iraunkortasunean hezteko kanpainak egiten jarraitzen du. Horrela,
 - Datorren astelehenean, azaroak 3, plastikozko poltsen erabilera murrizteko eta harategietan jaki-ontzien erabilera bultzatzeko kanpaina hasiko da.
 - Eskualdean martxan dago jatetxeetan eguneko menua ematen denean kanilako ura emateko kanpaina.

- Bidezko Merkataritzaren erakusketa Legazpiko Kultur etxean. Azaroaren 7tik 21era egongo da ikusgai, 17:00etatik 20:00etara eta guztiok gaude gonbidatuta.



- Legazpi hautagaia aurkeztu du Ingurumeneko Batzar Nazionalaren (CONAMA) 2014ko sarietara. Aurkeztu den proiektua: "Konpost-guneak erabiltzeko erregimen juridikoa eta baldintzak arautzeko udal Ordenantza". Ordenantza ezagutzeko eta zure botoa emateko honako web orria kontsulta dezakezue: www.premioconama.org



3.2. Kale Nagusia berritzea: aurreko tailerren emaitzak eta udal ondorioak

Urrian zehar Legazpiko Udalak Kale Nagusia berritzeari buruz egin diren tailerretan sortu diren emaitzak aztertu ditu.

Hauek izan dira tailer horien ezaugarriak:

Parte-hartze eremuak	Parte hartzaileak	Landutako gaiak
2014ko urriaren 9an, 14:30etik 16:30era, merkatariekin, ostalariekin eta taxilariarekin egindako tailerra	19 dendari eta ostalari eta udal taldea	<ul style="list-style-type: none"> - Kalearen oinezkoentzako eremuaren maila - Zer eduki behar du kaleak? Zer eskatzen diote kaleari merkatariek, legazpiarrek...?
Urriaren 9an, 18:30etik 20:15era bizilagunekin eta Agenda 21eko Foroarekin egindako tailerra	26 pertsona eta udal taldea	<ul style="list-style-type: none"> - Zer eskatzen diogu kaleari? - Gure ikuspuntutik, zer eduki behar du kaleak?
Urriaren 2an eta 3an ikastetxeetako lan taldeekin egindako bilerak	139 ikasle 9 eta 16 urte bitartekoak	
On-line Foroa	Legazpiarrik	

Emaitzak*
Gogoetak
Debatea
Proposamenak

*Ikusi dagozkion aktak



Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



Lan-saio desberdinetan lortu diren emaitzak irakurri eta aztertu ondoren, Udalak honako **ondorioak** atera ditu:

- **Taxien geralekutik txokoraino doan kale-tartea oinezkoentzako eremua izango da % 100.**

Erabaki hori merkatariekin, ostalariekin eta taxilariekin egindako tailerrean eta bizilagunekin eta Agenda 21eko Foroarekin egindakoan azaldu diren gogoen ondoren hartu da.

Horretarako, hainbat arrazoi eman dira bi tailerretan:

Arrazoiak:

- Kale osoari tratamendu bera eta bateratua ematea.
- Erabateko irisgarritasuna eta oinezko joan-etorriak bultzatzea.
- Eremu lasaia eta segurua.

Modu berean, eta hasierako tailerren ondorioz, Kale Nagusia erabat oinezkoentzako kalea izan dadin konpondu beharreko hainbat kontu zerrendatu dira. Horrela, Udalak ondoko gaiak konpontzeko bideak bilatzen saiatu da:

- Eginbehar azkarrak egiteko autoak aparkatzeko tokia.
- Kokapen berria taxien geralekurako.
- Zamalanetarako eremuak eta ordutegiak.
- Etxeko eta dendetako hondakinak biltzeko eremuaren kokapen berria.

Horren haritik, hauxe da Udalak Foroari aurkezten dion proposamena:

Udalaren proposamena...

... eginbehar azkarretarako autoak aparkatzeko tokirako.

- Mauleon hotelaren ondoan 6 aparkaleku egokituko dira.
- Doako TAO sistema bat ezarriko da denborak kontrolatzeko.
- Toki horietan, gehienez, ordu erdirako aparkatu ahalko da.
- Neurri horiek dendetako ordutegian hartuko dira: 9:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Ordu tarte horietatik kanpo libre geratuko da hor aparkatzea.
- Horrezaz gain, erosketetarako orgak uzteko eremu bat egokitzeko aukera aztertuko da.

Udalaren proposamena...

... taxien geraleku berria kokatzeko.

- Kepa Urzelai alkateak esan duenaren arabera, Udalak herriko taxilariekin hitz egin du eta badirudi kokapen egokiena Xarpot tabernaren ondoan izan daitekeela, Junetorri autobusaren geralekuaren parean.

... zamalanetarako lekuetarako eta ordutegirako.


- Kale Nagusian 2 leku egokituko dira. Horien kokapenak kalearen diseinu-proposamen desberdinen arabera zehaztuko dira.
- Zamalanetarako ordutegia: 7:30etik 13:30era (Laubideko oinezkoen kalean bezalaxe).

... etxeko eta dendetako hondakinak biltzeko gunerako.

- Gaur egun botikaren parean (Kale Nagusia 16) dauden edukiontziak Plazaola kalean jarriko dira (Bolatokiaren parean).



Mauleon hotelaren parean presako enkarguetarako egokituko diren aparkalekuak.



Taxien geralekuaren kokapen berria, Xarpot taberna ondoan, Junetorri autobusaren geralekuaren parean.



Etxeko eta dendetako hondakinak biltzeko kokaleku berria Plazaola kalean (Bolatokiaren parean).

Foroak baliozkotzat jo ditu Udalak proposatu dituen irtenbide desberdinak. Modu berean, Kale Nagusian desagertzen diren aparkalekuei konponbide bat eman behar zaiela adierazi da. Ildo horretatik, Kepa Urzelai alkateak kontu horren gainean Udalak egiten duen eta aurreko tailerrean azaldu zen balorazioa ekarri du gogora:

Kale Nagusia oinezkoentzat egokitzeak 50 aparkaleku kentzea ekarriko du; horietatik 25 plaza bizilagunek erabiltzen dutenak dira eta 25 gainerakoek erabiltzen dutenak. Horren aurrean Udalak gogora ekarri du:

- Zubialde eremuan 34 aparkaleku berri jarri direla.
- Azpikoetxe eremuko aparkalekua egokitu egin dela.
- Lurpeko aparkalekuan beti dagoela aparkatzeko lekua eta Udalak plaza horien erabilera bultzatu nahi du.
- Junetorri autobusa Kale Nagusitik pasa daitekeela eguneko ordu zehaztutan, oinez ibiltzeko zailtasunak dituzten herritarrek bertan egin beharreko enkarguak erosoago egin ditzaten.

”

• Kale berriaren diseinurako hainbat irizpide zehaztu dira.

Debatearen eta talde lanaren ondorioz, hainbat irizpide zehaztu dira kale berria diseinatzerakoan aintzat hartzekoak. Hauek dira:

Kale berria diseinatzeko irizpideak:

- Zabaltasuna eta leku irekia.
- Erabat iritsi-erraza, trabarik gabea.
- Kale desberdina nahi dugu, modernoa, erakargarria eta orijinala.
- Koloretsua eta bizia.
- Tratamendu bateratua kale osoan.
- Behar bezala mantentzeko kostu txikikoa.

• Badira hainbat elementu giltzarri direnak kalea diseinatzerakoan .

Elementu horiek talde bakoitzak egin dituen proposamen desberdinetan agertu dira eta, beraz, Udalak elementu giltzarri direla uste du kale berria diseinatzerakoan. Hauek dira:

Elementu garrantzitsuak kalea diseinatzerakoan:

- Argiztapena.
- Berdeguneak.
- Jarlekuak
- Beste batzuk: jolas-eremuak, bizikletak aparkatzekoak, iturria, eszenatokia...

Eta elementu horiei buruz nahi izan dugu gaurko tailerrean sakondu. Nola irudikatzen ditugu elementu horiek? Zein ezaugarri dituzte?



3.2. Kale Nagusiaren diseinu berrirako oinarrizko elementuak, ezbaian

Nolakoa izan behar du Kale Nagusiko argiztapenak? Zein irizpide bete behar dituzte kale berriko berdeguneek? Eta jarlekuek?

• Kale Nagusiko argiztapena

Hasierako tailerretan behin eta berriz azaldu den gaia da: "Gaur egun kale horren argiztapena oso txarra da eta aldatu beharra dago. Agian horregatik azaldu da behin eta berriz Kale Nagusiaren diseinu berriaz hitz egiterakoan".

Argiztapen-irizpideei buruz ez da eztabaida handia sortu. Udalak Kale Nagusiko argiztapenak oraintsu berritu den Nafarroa kalean ezarritako irizpide teknikoak izan behar dituela uste du.

Hauek dira irizpide horiek:



- LED teknologia: argi bera ematen du baina gutxiago kontsumitzen du. Argia zuriagoa da.
- Farolak kalean bertan jarriko dira eta fatxadetatik kenduko dira.
- Nafarroa kalean jarri den modelo bera jarriko da.
- Ez da lurreko argiztapena jartzea aurreikusten, arazo handiak ematen dituelako: apurtu egiten dira, ura sartzen da eta ez dute ondo funtzionatzen...

Planteatzen den argiztapena nolakoa den eta beste kontu batzuk argitzeko, taldea kalera atera da eta **Kale Nagusitik eta Nafarroa kaletik egin du bira**. Ibilbide horrekin pertsona bakoitzak kalea "begi berriekin" ikus dezala nahi izan da, diseinatzen duen eta kalea nola hobe daitekeen pentsatzen duen pertsona baten begiekin.

Eta paseoaren ondoren, **taldeak baliozkotzat jo du** Kale Nagusirako teknikoki proposatu den argiztapena. Gainera, lur azpian joango diren kaleko azpiegitura guztiak berritu beharra komeni dela baieztatu du.



• Kale Nagusiko berdeguneak

Nolakoak nahi ditugu Kale Nagusiko berdeguneak? Finkoak ala mugi daitezkeenak? Naturalak ala artifizialak? Belarrarekin? Zuhaitzekin? Horiek eta beste kontu batzuk planteatu zaizkio taldeari gogoeta egiteko.

Horren aurretik eta taldeko eztabaida aberasteko asmoarekin, honako informazio adierazgarria eman zaio taldeari:

Kalearen neurriak:

- Kale Nagusiaren zabalera: **13,5 metro**.
- Ezinbestean, zabalera **3,5 metro** libre utzi behar dira, zamalanetarako ibilgailuak, suhiltzaileak,... pasa daitezen.
- Desfileak eta bestelako ekintzak (inauteriak, danborrada, txirrindularien klasika,...) Kale Nagusian egiten jarraitu nahi bada, zabalera handiagoa beharko da. **5 metroko zabalera** gordetzea proposatzen dugu.



Adibideak eta ereduak:

Ane Mendiñueta udal arkitektoak leku, kale eta espazio desberdinetan egokitutako berdeguneen ereduak aurkeztu dizkigu. Helburua Kale Nagusian berdeguneei emango zaien tratamendurako aukera desberdinak ikustea da.

Nolako berdeguneak nahi ditugu? Finkoak ala mugi daitezkeenak? Artifizialak ala naturalak? Landareekin? Zuhaitzekin? Lauak ala ondulatuak?



Talde-ezetabaida eta emaitzak:

Talde-ezetabaidak Kale Nagusiko berdeguneen irizpideak eta ezaugarriak definitzeko balio izan du.

Talde desberdinen iritzia oso antzekoa izan da eta, beraz, emaitza argia izan da:



Nolako berdeguneak nahi ditugu Kale Nagusian?

- Mugikorrek, mugi daitezkeen loreontziekin. Loreontzi edo elementu horiek itxura desberdina izan dezakete, Legazpirekin izan dezakete lotura, bere historiarekin eta egunerokotasunarekin.
- Espezie naturalekin.
- Landareekin, zuhaixkekin eta/edo oso altuak ez diren zuhaitzekin.
- Koloretsua eta garaian garaikoa. Beste proposamen zehatza ezpela (boj) erabiltzea da, urte osoan hostoak galtzen ez dituenak.
- Zonalde zehatzen batean (bidegurutzetan adibidez) elementu finkoren bat jar daiteke. Dena den, zuhaitzak ez dira oso handiak izan behar, haien sustraiek zorua altxatu ez dezaten eta haien hostoek bizilagunei argia ken ez diezaieten.

Horrezaz gain...

- Telleriarteko Txirrindulari elkarteak 5 metroko zabalera gutxi dela esan du txirrindularien lasterketetarako. Proba horietarako gomendatzen den distantzia **6 metrokoa** izaten da.
- Bestetik, Kale Nagusiaren amaieran, Txoko aldean, koska bat dago eta edozein ekintza antolatzeko ondo egongo litzateke traba hori kentzea eta kale osoa maila berean egotea.

• Kale Nagusiko jarlekuak

Nolako jarlekuak nahi ditugu? Zertarako: beste pertsona batzuekin egoteko, egunkaria irakurtzeko, atsedean hartzeko,...? Nolakoa da jarleku erosoak? Bizkarduna, bizkarrik gabea? Zein materialezkoa?

Galdera horiek botata, Ane Mendiñueta arkitektoak hainbat adibide erakutsi digu, **gogoeta egiteko**.



Talde-etzabaida eta emaitza:

Oraingoan ere talde desberdinen iritzia oso antzekoa izan da eta bat datoz. Horrela, erraz zehaztu dira jarlekuen itxura eta ezaugarriak.



Nolakoak nahi ditugu Kale Nagusiko jarlekuak?

- Ergonomikoak, bizkardunak, gogorrak –ez bigunak- eta zabalak.
- Lurrera lotuta baina era berean erraz kentzekoak –jarleku finkoren bat jar daiteke baina oztopo izango ez den lekuren batean-.
- Materialari dagokionez, burdina eta zura konbinatzea: egitura burdinazkoa eta jarleku eta bizkarra zurezkoa.
- Elkartuta egon daitezela, bertan egoteko eta atsedean hartzeko.
- Formari dagokionez, biribilak.
- Jarleku-kopuru egokia jar dadila eta ondo banatuta: “kontuan hartu behar da katean 24 atari eta denda daudela”.
- Jarleku batzuk itzalean egon daitezela.

• Beste elementu batzuk

Bukatzeko, taldeak aurreko bileretan identifikatu ziren beste elementu batzuen irizpideak zehaztu ditu. Zehatz-mehatz elementu hauek aipatu dira:



- **Zoladura:** koloreduna eta forma desberdinekoa (alfonbra edo beste batzuk).
- **Estatua:** taldeak ez du "ikusten" kalean estatua jartzearena.
- **Eszenatokia:** plazan badago bat eta taldeak ez du horren beharrik ikusten. Plataforma txiki eta apal bat jartzea azter daiteke, ekintza desberdinetarako eta haurrek jolasteko erabil daitekeena.
- **I turria:** bai, taldeak garrantzitsua dela dio.
- **Terrazak:** jarriko direnak irizpide berdinak erabiltzea komeni da -estetika, neurria...-.
- **Argi-jokoak:** egun eta okasio berezietarako kalean koloredun argiak jartzea proposa daiteke.
- Haurrentzako **jolas-eremua** egokitzea batik batik ikastetxeetatik jaso den proposamena da. Kepa Urzelai alkateak Kale Nagusia jolas-eremu bat jartzea Udalak ez duela oso egoki ikusten esan du -jolas zehatzen bat jar badaiteke ere-; aldiz, Latxartegi parkea hobetzeko proposamena ondo baloratu da eta egokiago ikusten du hemen egin diren proposamenak bertan txertatzea.

4. Hurrengo urratsak



Arratsaldeko 8ak eta laurden dira eta tailerra bukatzeko ordua iritsi da. Gaur asko aurreratu dugula uste dugu eta egin dugun bidea elkarrekin egin dugu gainera. Oso interesgarria izan da taldeko pertsona desberdinek Kale Nagusia nolakoa izango den berdintsu baloratzen dutela ikustea.

Bukatzeko, Kale Nagusia berritzeko jarraitzen ari garen prozesua gogorarazi da eta hurrengo urratsak azpimarratu dira.



Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



Kepa Urzelai alkateak azaldu digunez, azaroan zehar Udalak aurrera egingo du proiektuaren diseinuan eta hurrengo foroan, hau da, **abenduaren 4an 18:30etik 20:00etara** egingo den bileran, proposatutako diseinua edo diseinuak aztertuko dira. Lan hori udal mailan egingo da eta, beraz, denbora eman beharko diogu udal teknikarien taldeari proposamena edo proposamenak garatzeko.

Ordura arte, ondo-ondo bizi! Agur esan baino lehen partaide guztiei eskertu egin nahi diegu egin duten lana: gaur txalo bero bat merezi dugu.

Eskerrik asko!!!
Txalo zaparrada bat zuentzat!